



NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN SARTZEKO PROBAK GEOGRAFIA LOGSE/2007

Egitura berdineko bi proba-proposamen ematen dira: (A aukera eta B aukera). Ikasleak horietako **BAT** aukeratu beharko du.

A AUKERA

1. Zatia (2 puntu, 0,5 termino bakoitza)

Definitu, garbi eta zehatz, termino hauetatik soilik 4: Koordenatu geografikoak, Errentamendua, Akuiferoa, Penilautada, Labore-txandaketa, Udalerria.

2. zatia. Gaia: "Turismoa Espainian". (Gehienez 4 puntu)


Garatu gaia, kontuan izanda honako alderdi hauek:

- Espainiako kokapen turistikoaren zioak.
- Turismo-eremu nagusiak Espainian eta Nafarroan.

3. zatia. Ariketa praktikoa. (4 puntu gehienez ere).

Komentatu behean duzun grafikoa, honako galdera hauei erantzunez:

- Irudikatzen diren elementuen deskribapena eta analisia.
- Klima-mota, eta, gutxi gorabehera, kokapena Espainian.
- Klima-mota honen eragina inguruneke beste hainbat elementutan.





GEOGRAFIA. 2007

B AUKERA

1. zatia. (2 puntu, 0,5 termino bakoitzeko)

Definitu, garbi eta zehatz, termino hauetatik soilik 4: Tanta hotza, Egitura-funtsak, Ibaiko terraiza, Biztanle-errola, Latifundioa, Migrazio-saldoa.

2. zatia. Gaia: “**Espainiako landaretza**”. (Gehienez 4 puntu)

Garatu gaia, kontuan izanda honako alderdi hauek:

- Espainiako landaretzaren faktore erabakigarriak.
- Itsasaldeko klimako basoa.
- Landare-espezien banaketa Nafarroan.

3. zatia. Ariketa praktikoa. “**Iruñea hiriko plano**a” (4 puntu, gehienez ere)

Iruñea hiriko plano a ikusirik, erantzun galdera hauei:

- Erlazionatu hiriaren kokapena ingurune fisikoarekin.
- Adierazi 2. zabalgunearen planoak dituen ezaugarriak, eta aldera itzazu Alde Zaharraren planoak dituenekin.
- Adierazi zein den planoan 7 eta 8 zenbakiekin markatutako tokien garrantzia.

IRUÑEKO PLANOA

